

BETI IKASTEN

1. -Aitita-amamak gatoz gaur bertso-kantura,
-"Maritxu, nora zoaz"
kantuen soinura.
-Guk ekingo deutsogu dakigun modura
-Jentiaren esanak guri zer ardura?

4- "Gure aitaita-amamak doaz eskolara"
-Hau ikusita, ilobak ze parre algarak!
-Jubilauak bai baino tontuak ez gara...
-Kupel hutsa baiño hobe beterik kikara.

7 -Ez mosu ta ez zirri, dana zan pekatu
-Eta ezin gustora baltzeoz dantzatu, sasoi onean jaku katea askatu!
-Gelditzen dan apurra ganoraz txastatu.

10- Ez genduan ikasi zer dan atsedena
-Nork lan gehiago egin, hori zan onena.
-Ahalegindu gaitezkan aldatzen ordena.
-Ondo jan, ibilli ta lan egin..azkena.

2.-Lehengo kontuak dira nahi eta ezina
-Nahiko lan zan betetzen etxeko topina
-Zahartzaroan beharko egin alegina
-Aita San Pedrok eingo deusku esamina.

5. -Orain ikasi dogu zer dan jimnasia
-Hazurrak bigundu ta hartzen arnasia.
-Ezergaitik ez dogu galduko klasia
-Ez dok errez makurtzen gure rrazia!

8-Gure artean noiznahi bertso ta txistiak
- Lana emoten deusku buruz ikastiak.
- Nori ez emon poza hori ikustiak?
- Ikusita nork esan: "Jubilau tristiak"!

3.-Jubilatuak badau nun eta zer landu
-Heldutasun betea zelan berangandu.
-Ezertxo egin barik ezin da ekandu
-Hobea izateko ez da inoiz berandu.

6. -Gure eskola hau da: "Ikusi ta ikasi"
-Guk ez dakigu zer dan ez "piper", ez "sasi"...
Zorionean ginan mundu zehar hasi!
-Gaur ezagutzen dogu erdia bai kasi.

9-Eleizan egon gara geldi eta mutu
-Zorionez ze argik gaituan ikutu!
-Itzi ditugu behingoz bildur ta ezkutu
-Emondako baietzaz ez gara damutu.

11- Eleiz barruan geldi luzaro egonak
-Aspaldion aldatu gaitu Barri onak.
-Anai-arreba gara gu andre-gizonak
- Hargatik bizi gara alkarri emonak

12.-Jubilatuak ditu
hainbeste balio
-Etxe ta kanpo dauzka
mila serbizio.
-Beti ezetz dionak
esan du:"Adio"
-Zor dena eman behar,
zer erremedio!

15.-Ikastolan gabiltz
hainbeste denpora
-Bere izen gozoa
da "Bizian gora".
-Konbidatzera gatoz
gaur zure ondora
-Dei zeuretzat da ta
ez bota albora.

13.-Horra garbi esanda
gure lezinoa
-Erakustea izan
da intentzinoa.
-Gauza ederra dugu
jubilazinoa
-Jainkoak emandako
bedeinkazinoa.

16.-Bete dezagun ondo
lanik ederrena
-Geure burua landu
kanpo ta barrena.
-Apustu hau berdin da
gazte ta zaharrena
-Irabazi dezagun
koroi ederrena.

14.-Bizitzan ikasia
da gure eskola
-Aprobatzen erreza
ez da izan inola.
-"Ikasten" iraun zagus
hala edo hola
-Holakoari Jaunak
lagundu daiola!

17.-Jubilauon Zaindari
Simeon ta Ana,
-Jesusen zain zegoen
bikote laztana.
-Iritxi ezaiguzue
grazi eder bana
-Zintzo bete dezagun
esan dugun dana

A.Martzel